

URIBE KOSTAKO OPORRETAN TXANGORA EGITASMOARI DAGOKION ZERBITZUA PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOAK.

Lehengo klausula: KONTRATUAREN HELBURUA

Kontratuaren xedea izango da Uribe Kostako OPORRETAN TXANGORA egitasmoari dagokion zerbitzua kontratatzea.

Herri parte-hartzaileak: Barrika, Gorliz, Lemoiz, Plentzia, Sopela eta Urduliz.

Hona hemen, zehazki, zerbitzuaren nondik norakoak:

Bigarren klausula: ZERBITZUAREN OINARRIA ETA FUNZIONAMENDU OROKORRA.

Haurrei aisialdian euskararen erabilera sustatzeko jarduerak eskaintzea.

Oporretan Txangora Lehen Hezkuntzako 250 haurrei zuzenduta dago (6-12 urte bitartekoei) eta egun osoko hiru txangok osatzen dute egitasmoa. Pazko astean, oporretan dauden haurrei aisialdi aukera egokia eskaini nahi zaie eta aukera hori, bereziki haurren adina kontuan harturik, kalitatezkoa eta era berean hezigarria zein entretenigarria izatea beharrezkoa da.

Autobusez egingo dira 3 txangoak Euskadiko eta Nafarroako toki desberdinetara eta bisitatuko diren tokiek jarduera kultural eta hezitzailea izateaz gain, kutsu ludiko eta dibertigarria izango dute. Goizeko 9:00etatik arratsaldeko 18:00etara izango da ordutegia, gutxi gora-behera.

Ume bakoitzak bere bazkaria eta askaria eraman beharko du eta txango bakoitzerako arropa egokia.

Aurten, **apirilaren 4an, 5ean eta 6an** gauzatuko dira irteerak.

Uribe Kostako Euskara Zerbitzuak izen-emateak kudeatuko ditu eta ondoren, aukeratutako enpresari helaraziko dio behin-betiko zerrenda ekintza bere osotasunean kudeatzeko.

Enpresa esleipendunak, ekintzaren kudeaketa osoaren ardura izango du: bisitak eta ekintza bereziak lotu, hezitzaileak kontratatu, autobus zerbitzua kontratatu eta

autobusen ibilbidea zehaztu, programazio zehatza osatu, txangoetako sarrerak erosi, taldeak eratu, ekintzak aurrera eraman, gurasoei informazioa eman eta abar.

Ekintza amaitzen denean, enpresak ebaluazioa egin eta memoria entregatu beharko du (euskaraz eta gaztelaniaz).

Hirugarren klausula: UMEEN ANTOLAKETA

250 plaza eskainiko dira, hiru txangoetan ume berberak hartuko dute parte. Hala ere, 250 ume horiek ez dira egun berberetan leku berberetara joango.

Hona hemen antolakuntza adibide bat:

	Apirilak 4	Apirilak 5	Apirilak 6
1 TXANGOA	50	100	100
2 TXANGOA	100	100	50
3 TXANGOA	100	50	100
GUZTIRA	250	250	250

Lauugarren klausula: PREMIA BEREZIA DUTEN UMEAK

Gerta daiteke ume bereziren batek izena ematea. Gizartekintzak hala eskatuz gero, dauden plazetatik baten bat premia bereziak dituen Mankomunitateko haurren bati egokitzea gerta daiteke. Kasu horretan Gizarte Zerbitzuek eskaera berezi bat egin beharko diote Euskara Zerbitzuari eta Euskara Zerbitzuak aztertuko du jasotako eskaera. Kasu horretan, enpresa esleipendunak begirale bereziren bat jarri beharko du.

Bosgarren klausula: AUTOBUS GELTOKIAK

Barrika, Gorliz, Lemoiz, Plentzia, Sopela eta Urdulizen autobus geltoki desberdinak egongo dira:

Barrika. Bus geltokia

Lemoiz. Armintzako bus geltokia

Lemoiz. Udaletxe aurrean (Urizar)

Urduliz. Udaletxe aurrean

Urduliz. Anbulategi ondoan

Plentzia. Metro geltokian

Plentzia. Isuskitza

Sopela (Larrabasterra). Metro ondoan (Loiola Ander Deuna)

Sopela. Eliza ondoko bus geltokia

Gorliz. Bus geltokia, eliza ondoan

Gorliz. Euskadiko Kutxa bus geltokia

Enpresak aurkeztu beharreko proposamenean autobusaren ibilbidea ere ondo zehaztu beharko du.

Seigarren klausula: GARATU BEHARREKO MEMORIA TEKNIKOA.

Eskatzaileek ondorengo alderdiak garatuko dituen lan-programa aurkeztu beharko dute (zerbitzuaren helburuak, metodologia, txangoak, autobus zerbitzuaren antolaketa, giza baliabideak, eta zerbitzuaren ebaluazioa):

1. Zerbitzuaren helburuak:

Aisialdian euskararen erabilera sustatzeko jarduerak eskaintzea:

- Euskararekiko motibazioa eta sentsibilizazioa indartzea jarduera atsegina eta gozagarrien bidez.
- Euskara haurren eremu sozialean eta afektiboan txertatzea.
- Euskara egunerokotasunerako tresna dela erakustea eta egunerokotasunean erabiltzeko tresnak eta baliabideak eskaintzea.
- Euskara maila akademikotik kanpo erabiltzeko espazioak eta aukerak sortzea.
- Partaideen arteko eta lagunarteko harreman ohiturak euskaraz izatea.
- Euskararekiko jarrera positiboa garatzea.
- Hurrei euskarazko komunikazioa eta elkarbizitza erraztea, hala nola, euskal kulturaren hainbat funtsezko aspektutara hurbiltzea.

2. Metodologia

- Parte-hartzailea eta dinamikoa.
- Hezkidetzaila, ez sexista eta ez baztertzaila.
- Komunikakorra.
- Ingurumenaren ezagutza eta errespetua bultzatzen duena.
- Jolasa ardatz duena.
- Pertsonen arteko harremanak bultzatzen dituena.
- Elkarbizitza eta elkar erantzukizuna sustatzen dituena.
- Adierazpena bultzatzen duena.

3. Txangoak

Oporretan Txangora egitasmoaren txangoak diseinatzerako orduan kontuan hartu beharko dira zerbitzuak dituen berriazko helburuak.

Gutxienez, 3 txango desberdin aurkeztu beharko dira eta honez gain, eguraldi txarra eginez gero, leku alternatiboen berri ere eman beharko da.

Euskara Zerbitzuak umeen zerrenda eta informazioa pasatu ostean enpresa esleipendunak, ekintzaren kudeaketa osoaren ardura izango du.

Txangoen programazioaren diseinua eta kudeaketa enpresa esleipendunaren betebeharra izango da. Hala ere, enpresa esleipendunaren eta Uribe Kostako Euskara Zerbitzuaren arteko elkarlana ezinbestekoa izango da. Enpresa esleipendunak eta Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak etengabeko harremana izango dute, aldaketen, arazozen... berri emateko.

4. Autobus zerbitzuaren antolaketa

Eskatzaileek autobus zerbitzuaren antolaketaren berri eman beharko dute, hau da, autobus desberdinen ibilbideak eta ordutegiak ondo zehaztuta egon beharko

dira. Honez gain, umeen segurtasunerako, autobuseko leku guztiek segurtasun uhala izan beharko dute.

5. Giza baliabideak

10 umeko gutxienez begirale bat egon behar da, beraz, 250 umerentzako gutxienez 25 begirale egon beharko dira.

Begiraleez gain, egitasmo osoa koordinatuko duen arduraduna ere beharrezkoa izango da.

Lan-taldearen lan-hizkuntza euskara izango da, bai ekintzak koordinatu eta programatzerako orduan eta bai parte hartzaileekiko harremanetan.

Lan-taldearen profila ondorengoa izango da:

Koordinatzailea

- EGA titulua edo baliokidea.

Begiraleak

- EGA titulua edo baliokidea.

6. Zerbitzuaren ebaluazioa

Ebaluazioari dagokionez, enpresa esleipendunak amaierako memoria aurkeztu beharko du, euskaraz eta gaztelaniaz.

Uribe Kostako Zerbitzu mankomunitateak ikuskatu ahal izango ditu zerbitzuari lotutako ekintzak. Horrez gain, egiaztatu eta ikuskatu ahal izango du enpresa esleipendunak betetzen dituela baldintza-agiri hauetan ezarritako baldintza tekniko guztiak.

Enpresa esleipendunak baldintzetan adostua bete beharko du. Ez betetzekotan, enpresaren aurkako neurriak hartu ahal izango ditu Uribe Kostako Mankomunitateak, kontratua bertan behera uzteraino.

Zazpigarren klausula: BALORATU BEHARREKO IRIZPIDEAK

1.- Irizpide objektiboak edo formula matematiko baten bitartez baloratu beharrekoak:

Lehengo irizpidea: Eskaintza ekonomikoa: **50 puntura arte**. Eskaintza ekonomiko onuragarriena aurkezten duen enpresari – eskaintzarik baxuena diru-kopuruari dagokionez- 50 puntu esleituko zaizkio. Gainerako enpresei modu proportzionalen esleituko zaizkie puntuak; hots, eskaintza ekonomiko onuragarriena zein izan eta horren arabera.

Puntuak esleitzeko erabiliko den formula matematikoa hurrengoa da:

$$\text{Puntuaketa: } \frac{50P \times \text{Eskaintza onuragarriena (Eskaintzarik baxuena)}}{\text{Kasuan kasuko eskaintza}}$$

Proportzio bako eskaintzatzat joko dira Plegu Administratiboetako Hamaseigarren klausulan aipatutako nondik- norakoak betetzen dituztenak.

Bigarren irizpidea: 3 puntu egokituko zaizkio Lehen Sorospenetan titulua duten hiru monitore dituela ziurtatzen duen enpresari; era berean, hiru monitore horiek txango guztietara pertsonatzeaz ez ezik horietako bana umeak banatzen diren azpitalde batean egon beharko da.

Hirugarren irizpidea: 2 puntu egokituko zaizkio antolatu beharreko txango bakoitza Euskal Herriko probintzia ezberdin batean gauzatzen duen enpresari.

Laugarren irizpidea: Gehienez **5 puntu** egokitu zaizkio premia bereziko ume bakoitzeko Heziketa Berezian tituluduna den monitore bat ziurtatzen duen enpresari. Horrenbestez, zenbat monitore ziurtatu eta haina puntu eskuratuko ditu enpresak, betiere, 5 puntuko muga gainditu gabe.

Lehenengo Eranskin lez atxikitzen da aipatutako lau irizpideak aurkezteko formularioa, dagozkion eskaintzak ezinbestean formulario horretara egokitu beharko direlarik.

2.- Irizpide Subjektiboak edo formula matematiko bitartez baloratu ezin direnak:

Irizpide subjektibo bakarra egongo da zeinaren bitartez, gehienez, **40 puntu** eskuratu ahal izango ditu enpresa lizitatzailerak (5. Irizpidea)

Bosgarren irizpidea: Ondoren zerrendatuko diren aspektuak jorratzen dituen Memoria edo Proiektu Teknikoa: **gehienez 40 puntu.**

- Ezagutzera ematen diren lekuak eta jarduerak haurrentzako interesgarriak ,erakargarriak eta kutsu didaktikoa izatea. Aktibitate bakoitza aukeratu izanaren zergatia azaldu beharko da baita lantzen diren materiak eta horien helburua ere. Horretaz landa, jorratuko diren aktibitateak kutsu historikoa, kulturala eta Euskerarekin nolabaiteko harremana duten kontuan hartuko da: **gehienez 15 puntu**

- Eguraldi txarra eginez gero, planteatutako txango/ jarduera alternatiboak. Gainerako hiru jarduera/txango proposatu beharko dira, bat egun bakoitzeko: **Gehienez 15 puntu.**

Irizpide honek barnebildutako edukia nahitaez jorratu beharko da.

- Taldeak antolatzeko metodologia: **5 puntu gehienez**
- Txango bakoitzaren garapena, ordutik ordura zehaztuta (autobusa zein ordutan hartuko den, leku bakoitzean garatzen den jardueraren iraupena, bazkalordua..): **5puntu gehienez**

Zortzigarren klausula: KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratua perfekzionatu ondoren, ekintza amaitu arte. Epe hau luzatu liteke beste urte bete Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak nahi izanez gero.

